

Aretxagazeta



*Nekazarien uzta aukeran kasean,
artisaunen jarduna ikusgai aurrean;
San Migel etorri da, ezpata eskuan,
asteburu honetan jaia da gurean*

SANMIGELAK03

Ondo pasau San Migel jaiak!



MEMESA

INDUSTRIA HORNIDURAK

Tel.: 943 71 24 25 / Faxe: 943 71 22 98
ARETXABALETA · ARRASATE · OÑATI

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

K U L T U R G A I A K

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK


HURBIL KULTURGAIK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserría • p.k. 160
20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxe: 943.71.47.08
e-posta: hurbil@hurbilkulturgaiak.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Aprobetxetan ditzuzu ferixa eta azoka ekologikuek zerbait erosteko?




PILI GARCIA
langillie



JABIER IGARTUA
jubilaue



MARIA FELISA ITURRI
langillie



EUGENIO ZUBIA
jubilaue



ELENA SANDOVAL
langillie



ESTEBAN EGUREN
jubilaue

Bai. Normalien, gaztaie eta berdurak erosten dittut. Dendako produktuek baiño garestixauk izeten die ferixakuek, baiñe, hala eta be, merezi dau holakuetan gehixau pagetie.

Bai, betik erosten dot zer edo zer. Gaztaie eta eztixe urtero-urtero erosten dittut andriendako. Ez dot uste garestixek dienik, kapritxuek izeten die, kalitate onekuek, gaiñera.

Bai, zela ez. Izen be, herriko dendetan ez dauzen base-riko produktuek erosteko aukera ona eukitten dot holako ferixetan. Garestixauk die, baiñe kalitate hobie daukie.

Bai, gustetan jat, baiñe egi-xe esatiarren, azkenaldixen gutxitan egon izen naz ferixetan. Ardaue kontuek asko gustetan jat, eta holako ferixetan ze ardaue klase egoten dan begiketan dot.

Bai. Ogixe, pomadak... eta holakuek erosten dittut ferixetan. Produktu normalak baiño garestixauk izeten die, baiñe produkziño txikiñe daukienez, ulergarrix da.

Bai, horixe! Baserriko pastelak, gaztaiek... Holakuek gustetan jat. Ez dot uste garestixek izeten dienik. Kalitate oneko produktuek die; hortan, ez jat petsetan larrei pagetan dounik.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 27

ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

DOMEKA, 28

ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE
PARROKIA

Domeketan: 11:30

Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Zapatuetan: 18:30

Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

AOZARATZA

Domeketan: 12:30

ARKARAZO

Domeketan: 11:30

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO

Ez dago mezarik hile honetan.

OHARRAK

**'UDA'KO HILDAKO BAZKIDEEN
ALDEKO MEZA, BIHAR**

Bihar, zapatua, UDAko hildako bazkideen aldeko meza izango da 19:30ean parrokan.

**ERRETIRATUEN EGUNA
URRIAREN 4AN**

Urriaren 4an, zapatua, erretiratuek euren omenezko eguna ospatuko dute. 11:00etan, Basotxoko tabernan salda hartuko dute guztiek, eta gero, 12:30ean, meza izango dute Andre Mariaren Zeruratze parrokan. 13:30ean, berriz, kirol etxean bazkaria izango dute. Bazkalostean, Ludi Berri taldearekin dantzaldia izango dute, eta, azkenik, hainbat opariren zozketan hartuko dute parte bazkaltzen egondakoek.

IRUDIA



Kantua

1. Loramendi ikastola:
Gerra ostian sasoi baltza hizkuntziak be giro latza, Ikastolekin sortu gauen esperantza.

2. Beinke:
Eta heldu da gure aukera, barritu dogu gogo bera, geuk daroiagu gure lehena, etorkizunera.

3. Loramendi ikastola:
Ikastolian ahalegina, euskaraz bizitzeko grina kalian zabalduaz eskolan egina.

4. Beinke:
Aurrea goiaz ez gaz geldi elkarte txiki bihotza haundi Mendixa barriz loratu arte ekin Loramendi.


OPEL

Vectra GTS berria:
Ez da edozein auto.
Zeure autoa da.

ondo pasau San Migelak!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABAETA
Tel. 943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20



Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 26

19:00 Buruhandien kalejira, Aretxabaletako txistulariek lagunduta.

19:30 Kukubiltxo taldearekin kale animazioa. *Mamutxak* antzezlanaren aurkeztuko du.

Zapatua, 27

10:30 Diana, herriko txistulariekin.

11:00 Txalaparta Durana kalean.

11:30 Leizarra Musika Eskolako trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte.

12:30 Salda Durana kalean.

13:00 Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak.

14:30 *Euskal presoak Euskal Herrira!* lelopean herri bazkaria Iturrigorri frontoian. Bazkalostean asto lasterketa, Kurtzebarri

eskolako kantxan.

16:30 Futbol partidua: UDA-Elgoibar.

17:00 Hala Gera gaitariak herriko kaleak alaituko dituzte.

19:00 Ohiturari jarraituz, Beinke-Loramendi dantza egingo dute Herriko Plazan, Musika Eskolaren eta Loramendi dantza taldearen laguntzarekin. Bixente Etxeandiari agurra.

20:00 Larrin dantza Durana kalean.

21:30 Eusko Disko Festa.

- Horrez gain, 10:00etatik 14:00etara bitartean artisau feria eta IX. azoka ekologikoa izango dira Durana kalean. Baita taloak, sagardoa... ere.

- Jarri Ikurrina zuen balkoi edo leihoetan eta irten kalera baserriar jantzita!

Domeka, 28

10:00 Durana kalean Gazteentzako Udazkeneko Kriteriumaren hasiera.



ITURRIGORRI FRONTOIAN HERRITAR UGARI BATUKO DA BAZKALTZEKO

(Bukaera 11:30ean Mendiola auzoan.)

13:00 Herri kirolak. Pentaklon proba. Hainbat harri-jasotzailek eta aizkolarik euren indarrak neurtuko dituzte aurrez aurre.

Aurkezlea: Ziriako.

16:00 Erlojukontrako txirindulari lasterketa.

16:30 XI. San Migel Mus Txapelketa. Trofeoa, txapela, eta dirua lehenengo sailkatuendako. Izenematea: 15 euro. (15:15etik 15:45era).

16:30 Haurrentzako parkea Herriko Plazan.

18:00 Erlojukontrako txirindulari probaren bukaera Durana kalean.


19:30 Iturrigorri frontoian Mikel Deunaren kontzertua: *Atxabalta abertzalea* ikuskitzuna. Laguntzaileak: Leizarra Musika Eskola, Aretxabaleta Abesbatza, Aretxabaletako Udala.

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90




LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

FELIX GIZONEZKOEN ILE APAINDEGIA

Artazien artean makina bat egun,
lanbideak eman dit milaka ezagun.
Bezera guztiokin gelditzen naiz zordun,
mila esker lagunok, beti arte agur



Txapela buruen
eta zapixe lepuen
San Migel jaixek
sekuleko giruen.

EGUZKIGRAF
inprimategia

ondo pasau
eta ahal dena gastau!!

Industrialdea F-0-4. Araba Ibilbidea. Aretxabaleta. Tfnoa. 943 791844. Faxe 943 792941. E-mail: info@eguzkigraf.com

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



E T X E A P A I N K E T A

EGUBAKOITZA KUKUBILTZO ANTZERKI TALDEAK 'MAMUTXAK' ANTZEZLANA EGINGO DU GAUR ARRATSALDEAN

Kukubiltxoko kideek 'mamutxak' aurkituko dituzte gaur herrian

Kukubiltxo antzerki taldeko kideek 19:30ean antzeztuko dute azken lana herriko kaleetan

AMAGOIA LASAGABASTER

Gaur, egubakoitza, Mamutxa SA-ko kideak izango dira Aretxabaletan. 19:30ean hasiko dira kaleak miazten eta mamutxak harrapatzeko. Baina zertzuk ote dira mamutxak?


Mamutxak Kukubiltxo antzerki taldearen azken lana da. Horien ikerketaren arabera, azkenaldian hainbat herritan mamutxak izeneko jeinuak azaldu dira, eta Kukubiltxokoek guztiak harrapatu gura dituzte. Gaur Aretxabaletan izango dute lana.

KALE ANTZERKIA

Kukubiltxokoek mekanizatutako unitate mugiko-

rrean agertuko dira herrian. Barnean teknologia aurreratuenekin hornitutako materiala dakarren giza taldea etorriko da. Prestakuntza gorena eta nazioarteko onespina duten zazpi zientzialari, hain zuzen ere. Horien guztien helburua mamutxak izeneko pertsonaia mitologikoak harrapatzeko da. Horregatik, miaketa sakona egingo dute, besteak beste, Durana kalean zehar. Gainera, ikusleak aukera izango du antzerkian parte hartzeko.

Kukubiltxo taldekoek Aretxabaletan aurkeztuko duten lana Josu Camarak zuzendutakoa da. Antzezle lanetan, berriz, Jon Eriz, Mari Feli Etxeandia, Gorka Fuentes, Javier Obregon, Aritza Rodriguez, Aiora Sedano eta Iurgi Etxebarria aretxabaletarra ibiliko dira.



Unitate mugikor mekanizatua erabiliko dute Kukubiltxokoek Sugar, Tartalo, Jentila, Oihulari eta gainerako Mamutxak harrapatzeko.


KUKUBILTZO.

ETORRI ETA INFORMATU
KONPROMISO BARIK


Azkenean, **laser** depilaziorako irtenbide eraginkorra: Megon 780

- Eraginkortasun handiena
- Denbora laburrean
- Segurtasun osoz

Gemes
estetika



ondo
pasau
jaixetan!



Erakusketa: Araba ibilbidea 25



Araba ibilbidea 17 eta 25
Tel.: 943 79 28 41 Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta
E-posta:
kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

ALUMINIOA, P.V.C.a, POLIURETANOA, ALUMINIOA-EGURRA, PERTSIANAK ETA OSAGAIK

*Ondo ibili
San Migeletan!*

Aretz

taberna



- .Gosariak**
- .Pintxoak**
- .Plater konbinatuak**
- .Otartekoak**
- .Pizzak**
- .Hanburgesak**
- .Sandwichak**
- .Oilasko erreak**
- .Kazuelatxoak**

GORA SAN MIGELAK ETA ARETXABALETARROK!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

ZAPATUA

ARTISAU FERIA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN IX. AZOKA

Artisau feria eta azoka, aurten Duranan

Bai azoka ekologikoa, bai artisauen postuak, 30 inguru, Durana kalean izango ditugu

MIRARI ALTUBE

Euskal giroko jaiak egin gura izaten da San Migel jaietan; hori horrela, azoka ekologikoa eta artisauak izaten dira protagonista. Aurten Durana kalean egongo dira guztiak, 30en bat artisau eta 20 nekazari inguru.

Txistu hotsak, txalaparta doinuak eta trikitilarien musika izango dira nagusi zapatu goizean herrian. Helburu bakarra: artisauak, nekazariak, saltzaileak eta, bate ere, baserritar jantzi-tako herritarrek animatzea.

JAKIEN AZOKA ETA ARTISAUTZA Durana kalea postuz bete-ko zaigu zapatuan 10:00eta-



Nekazariak eta artisauak euren produktuak ekarriko dituzte zapatuan Durana kalea herritarrek ikusi eta eros ditzaten.



ARTXIBOA

tik aurrera. 20 nekazari inguru etorriko dira ortue-tako jakiak aldean hartuta. Jose Lonbide aretxabale-tarra ere bertan izango du-gu, urtero moduan. Aurten, gainera, postuek arti-

sauak izango dituzte lagun Duranan. Egurra lantzen, zeramikazko ontziak egi-ten, goma-aparrezko pro-dukтуak saltzen... 30en bat postu egongo dira. Batzuek zelan lan egiten duten era-

kutsiko digute eta beste batzuek euren lanak sal-duko dizkigute; hortaz, diru-zorroa ondo beteta ekarri!

Mokadutxoa hartu eta eztarria leuntzeko aukera,

bestalde, Tril emakume tal-deak eskainiko digu. Urte-ro moduan, aurten ere ger-tu izango dituzte talo goxo-ak eta sagardo freskoa txosnara hurreratzen dire-nendako.




*Ondo ibili
San Migeletan!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

*Aretxabaleta
okindegia*





Aretxabaletako Udalak San Migel jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi.



ARETXABALETAKO
UDALA

ELKARRIZKETA BIXENTE ETXEANDIA SAN MIGEL JAIETAKO OMENDUA

“Ez dakit omenaldirik merezi dudan, hartu egingo dut eta kito”

M. A.

San Migel da Aretxabaleta Kirol Elkarteko zaindaria eta Bixente Etxeandia presidentea. San Migel jaietan bata eta bestea esku-tik joango dira. Zapatuan, 19:30ean, meza izango dute UDAn hildako bazkideen alde. Bixenteri omenaldia egingo diote.

Omenaldia egingo dizute San Migel jaietan...

Ez dakit ezer, kalean emakume batek esan didana besterik ez. Merezi dudan? Ez dakit, egiten didatena hartu eta kito.

Lan asko egingo zenuen, ba, Aretxabaleta Kirol Elkartean alde?

Bai, hori bai.

Asko aldatu dira gauzak UDAn?

Izugarri. Orduan, herriko lantegiek eurek or-

daintzen zizkiguten entrenamenduetara joateko gal-tzen genituen lanorduak; Ilargiren lantegitik, esaterako, hamar bat lagun ateratzen ginen. Orain, enpresa bakarren batek ematen digu dirua, beste inork ez.

Zelakoak ziren orduko futbolzaleak?

Benetakoak, taldeari leialak. Ni jokalaria nintzen garaian bost autobus joaten ziren Aretxabaletatik herriko taldearekin; orain, ostera, jokalarien autobusa ez dugu betetzen, eta debaldea, lehen ez bezala.

Eta UDAko zuzendaritza?

Hori ere asko aldatu da. Lehen, jende gehiegi zegoen eta orain... Nik 10 urte daramatzat presidentea karguan eta beste batzuek 14 inguru. Lehen, gainera, lan asko egin behar izaten zituzten futbol zelaian, baina orain ez dago batere lanik; pentsa, atezaina ere badaukagu...



Dirua edukiz gero, jende asko etorriko litzateke, baina dirurik ezean...

Eta zer gertatuko da zuek elkartea uzten baduzue?

“Herriko lantegiek ordaintzen ziguten”

“Nire garaian bost autobus joaten ziren taldearekin”

“Alaves taldean ditut oroitzen gozoenak”

Ezer ez, sei mila biztanle dituen herri baten derrigorrez egon behar dute lana hartu gura duten lau edo bost lagun. Oso samurra da batzuk lanean dabilzaila-eta ardurarik ez hartzea.

Talde askotan jokatu zenuen. Non dituzu oroitzen onenak?

Alaves taldean, lehenengo mailan jokatu nuen eta oso oroitzen gozoak ditut.

Jokalaria, entrenatzaile, presidente. Beti futbolaren inguruan lanean?

Bai, 16 urterekin hasi nintzen jokalaria eta 35ekin erretiratu. Orduan, entrenatzaile lanari ekin nion, eta urtero ibili naiz horretan orain arte.

Domeketan zozketa txartelak saltzen dituzu.

Bai, gure diru iturri dira eta, beharko egin.

Noiz arte jarraituko duzu futbolaren eta UDAn alde lanean?

Nork daki. Gabonetarako zuzendaritza berria sartzea gurako nuke, horrela lanaren gorabeherak erakusteko. Baina ikusi egin behar norbait animatzen den...



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru etxeekin lan egiten dugu: (Lagun Aro, Adeslas, Mapfre, etab.)

Jar zaitez profesional espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE ZENTRUA



KIROLA

HERRI KIROL PROBAK ETA TXIRRINDULARI GAZTEENDAKO UDAZKENEKO CRITERIUMA

Kirola izango da nagusi San Migel domekan

Txirrindularitzako proba bi eta herri kirolak izango dira domekan; horiekin batera musa eta jolasak

M.A.

Goizeko lehen orduetan txirrindulariz beteko zaizkigu herriko kaleak. Mendiolan bukatuko dute proba eta onenek arratsaldean erlojuaren kontra egin beharko dute. Eguerdi partean, osera, herri kirolak izango ditugu ikusgai Herriko Plazan. Hainbat aiz-

kolarik eta harri-jasotzailek indarrak neurtuko dituzte guztion aurrean.

MUSTXAPELKETA ETA JOLASAK Arratsaldean, 16:30ean, San Migeletako XI. Mus Txapelketa jokatu dute. Ordu berean, ume eta gaztetxoek gaztelu puzgarriak izango dituzte plazan, gura beste salto eta jolas egiteko.



Herri kirol proben erakustaldi bikaina Herriko Plazan

Urtero moduan, herri kirolek leku berezia izango dute San Migel jaietan. Huts egin barik, 13:00etan elkartuko dira hainbat euskal kirolari pentakloi probari aurre egiteko Herriko Plazan. Ikusleen gozagarri, gainera, motozerra erakustaldia egingo dute ekitaldiaren amaieran.

Herri kirolek gero eta garrantzi handiagoa dute San Migel jaietan. Duela sei bat urtera arte Andramari jaietan egiten ziren, baina euskal jaietarako aproposagoak zirela iruditu zitzairen Kultura Saileko arduradunei.



Txirrindulari gazteendako IV. Udazkeneko Criteriuma

Noiz baino txirrindulari gazte gehiago hurreratu dira domekan Aretxabaletako kaleetara. Gipuzkoarrez gain, Nafarroatik eta Iparralde-tik talde bi etorriko dira Gipuzkoako Txirrindulari Elkartek gonbidatuta. Hortaz, 80 parte-hartzaile inguru izango dira goizean Durana kalean.


Udazkeneko Criteriumean proba bi izango dituzte: lehena 10:00etan hasiko da, Durana kalean, eta 11:30ean bukatuko da, Mendiolan; gero, arratsalde partean, goizeko lasterketan sailkatutako onenek, 21 txirrindularik, erlojuaren kontrako proba izango dute.

San Migel jatetxea

San Migel jai zoriontsuak opa dizkizuegu

- Ostiraletan menu bereziak
- Asteburuetan, karta eta plater konbinatuak

Apetzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71



JAUSSORO OSTATUA



Ondo ibili
San Migeletan!

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

KiXKur

ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak:

manikura,

pedikura,

aurpegiko azala garbitzea....

Gozatu San Migelak!

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



MUSIKA DOMEKAN 'ATXABALTA ABERTZALEA' IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUTE ITURRIGORRI FRONTOIAN

Jaiak agurtzeko, euskal giroko ikuskizuna

Txalapatariak, txistulariak, dantzariak, abesbatzak eta musikariak egingo dute bat domekan

M.A.

Ikuskizun bikainarekin esango diegu agur San Migel jaiei. Euskal kantu zaharrak gogoraraziko dizkigute Aretxabaleta Abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolako musikariak dantzari, txistulari eta txalapatarien laguntzarekin.

Atxabalta Abertzalea ikuskizuna gertatu dute hainbat aretxabaletarrek domeka ilunkararako. Baina zer da *Atxabalta Abertzalea*? "Kontzertu izena eman diogu, baina hori baino zerbait gehiago da", dio Anjel Barandiaran ikuskizuneko zuzendariak. "Euskal musikak eta dantzek bat egingo



Haurren abesbatzak eta nagusienak bat egingo dute domeka arratsaldean eskainiko duten ikuskizunean.

duten jaialdia izango da".

ABERTZALEEN BATASUNA

Isilean gorde dute orain arte, baina urte hasieran hasi zituzten entseguak Leizarra Musika Eskolako musika-

"Kanpotik euskaldunon aurkako erasoak datozkigu; hortaz, Aretxabaletako abertzaleok batu beharrean gaude"

riek eta Aretxabaleta Abesbatzako kideek haurren abesbatzarekin batera. Horiez gain, txalapatariak, txistulariak eta dantzariak ere hartuko dute parte. Aurkezle lanak, ostera, Jon Sarasuak egingo ditu. Hortaz, hiru edo lau lagun izan ezik, parte hartuko duten guztiak aretxabaletarrak izango dira. Abesti bat baino gehiago, gainera, Anjelek berak eta bere osaba Emilianok moldatutakoak dira. Aretxabaletako abertzaleak batzea eta indartzea du helburu ikuskizunak. "Kanpotik euskaldunon aurkako erasoak datozkigu barra-barra, eta abertzaleok batu beharrean gaude, geure hizkuntzak, kulturak eta asmoek aurrera egin dezaten", dio Anjelek. "Izan ere, askatasunaren ideia ez da lau gazte zororena, eta hori erakutsiko dute ikuskizunean dauden abestiek, batzuek 100 urte baino gehiago dituzte-eta". Domekan izango da jaialdia, 19:30ean, Iturrigorri frontoian, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Herritarrek eurek ere aukera izango dute ikuskizunean parte hartzeko, abesti gehientsuenak oso ezagunak dira-eta.

ARTXIBOA

www.zainduz.com

Taldeko saioak:
Aukera askeko ordutegi,
eguna eta ekintza

- > Tonifikazio saioak
- > Gantza kentzeko saioak
- > Indarreko saioak
- > Luzapenerako saioak

Talde bereziak

- > Gimnasia Terapeutikoa
- > Tai-Chi
- > Aikido
- > Aerobik txiki / Aerobik gazte
- > 3. Adineko gimnasia

Denboraldi honetako ekintza berriak:

- > Sabeleko dantza
- > Salsa
- > Aretoko dantzak
- > Hot Cycling (spinning)
- > Funky
- > Shiatsu ikastaroa

Fitness Zerbitzua

- > Kalitate goreneko materialeak (Bihotz taupaden kontrolerako sistemarekin CPR)
- > Monitore kualifikatuak momentu guztietan
- > Banakako programak
- > Ariketa taula digitalizatuak
- > Programa bereziak: Pisua jeistekoak, haurdunaldi ostekoak, Behobia-Donostia gertatzeko...

**ZUK HELBURUAK JARRI,
GUK BITARTEKOAK!!!**

- Azterketa fisiko-medikuak eta aldizkako kontrolak.
- Ordutegi jarraia (8:00tik 21:30era)
- Dietista Zerbitzua
- Urteko Kuotarik gabe
- Sauna dohain
- Fisioterapia / masaje zerbitzua
- Solarium bertikala
- Zentrutik kanpoko ekintza ugari: balnearioak, ski irteerak...



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 behea
Tel. 943 71 27 92
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)

e-mail: zainduz@euskalnet.net

ERRETRATUZAHARRA

Orain dela 43
urte egin zuten
ezkontza

Antzinako ezkontzarekin hasi zituzten San Migel jaiak 1990ean, eta geroztik urtero ospatu ditugu. Antzinako ezkontzaren antzezpena, hala ere, 30 urte lehenago egin zuten lehenengo aldiz, 1960ko ekainaren 19an, hain zuzen. Orduan sarri egiten zituzten antzerkiak zineman, batez ere, negu partean, eta bete egiten zen aretoa. Antzerkia egitera batzen zirenetako bati antzinako ezkontzaren antzezpena egitea bururatu zitzaion. Halaxe pentsatu eta egin.

Ezkontzako segizioa zineman jantzi eta herriko plazatik atera zen. Poliki-poliki futbol-zelairako bidea hartu zuten, hantxe egin zuten-eta ezkontza. Antzinako ezkontzako pertsonaia guztiak antzeztu zituzten: ezkongaiak, abadea, aitajaun-aman-drea, aguazila, gonbidatuak... Bakoi-tza zegokion arropa jantzita, eta dotore askoak, gainera, batzuk kanpotik ekarri zituzten. Arrioa Egilleor baserriko idiek eroan zuten gurdian, eta gonbidatuei eta herritarrei Dunixe



Zuazabeitiak erakutsi zien.

Erretratuan honako hauek daude, ezkerretik eskumara, zutik: Mari Tere Etxebarriarteun, Andoni Antxia, Sabino Larraniga, Miren Zuazabeitia, Jasone Uribesalgo, Karmelo Igartua, Kontxita Peña, Bernabe Makazaga, Anjelita Ibartzabal, Mariano Otxoa (abadea), Jabier Iturbe (senargaia),

Milagros Urreta (emaztegaia), Klotilde Zubizarreta, Iñaki Altuna, Anita Bengoa, Rufino Peña, Maria Klara Axpe, Juanito Arriola, Jose Antonio Leanizbarrutia, Paulo Urkia *Litri*.

Makurtuta honako hauek daude: Juanito Axpe, Juanito Akixu, Lourdes Bengoa, Dunixe Zuazabeitia, Lorea Leanizbarrutia, Koldo Iriarte, ezezagu-

na, Arantza Leanizbarrutia, Eulali Zuazabeitia, Konsuelo Aranguren, Joseba Lasagabaster, San Migel eta Alberto Uribetxebarria.

Hurrengo urtean, berriz, bataioa-
ren antzezpena egin zuten.

Argazkia: Bernabe Makazaga

**EGUN ZEIN GABA
EUSKARA EZ DA TRABA!
ONDO PASAU
SAN MIGELAK!**

loramendi
euskera elkarteak



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETAKO

Ondo ibili San Migeletan!

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Lelhoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 26a / 138. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Beheko Errota Musika Eskolan euskal dantzak ikasten hasi dira gaztetxo ugari

AINTZANE GARDOKI

Beste herri askok bezala, Eskoriatzak ere urtetan izan du euskal dantza taldea: Gorosarri taldea. Baina aurrera egiteko jende falta zuela-eta, 1998an desagertu egin zen. Orain, Udalak bultzatuta eta Musika Eskolaren ardurapean, euskal dantzak ikasten hasi dira umeak.

Ume koadrila handia elkartu zen joan den egubakoitzean, hilak 19, Eskoriatzako frontoian. Helburua: Amaia Doyague dantzari arrasatearraren esanetara euskal dantzak ikastea.

Izan ere, Eskoriatzako Udalak ahalegin berezia egin du Eskoriatzako ume eta gaztetxoek euskal dantzak ikas dezaten. "1998an desagertu zen Gorosarri dantza taldea. Boluntarioak behar dira dantza erakutsi, herriz herri umeak har tu eta eramateko... Hala, Aretxabaletako ereduari jarraituta, Udala Musika Eskolarekin harremanetan jarri zen euskal dantzak irakasteko. Beheko Errota eskolako arduradunek segituan baietza eman eta lanari ekin diote dagoeneko", esan digu Euskara zinegotzi Maider Otamendik



Lehenengo egunean ondo baino hobeto pasatu zuten umeek dantzan Amaia Doyague arrasatearraren esanetara.

UMEEN DANTZA TALDEA HELBURU

Lehenengo dantza eskola egunean 4 eta 7 urte arteko 22 ume batu ziren. "Ezusteak atsegina izan dugu; izan ere, ez genuen horrenbeste ume

espero. Talde bakarra egitea genuen helburu, eta bi egiteko beste lagun ditugu", esan digu Musika Eskolako zuzendari Araceli Tellecheak. Aurten, dena dela,

umeek dantzak ikasiko dituzte; geroago etorriko da dantza taldea osatzea. Hala, izena eman gura duenak 943 71 49 95 telefono zenbakira deitu beharko du, arratsaldez.

Udalak ahalegin berezia egin du umeek euskal dantzak ikas dezaten

Lehenengo dantza eskola egunean 4 eta 7 urte arteko hogeita bi ume batu ziren

Izema eman gura duenak Musika Eskolara deitu behar du, arratsaldez



Eskoriatzarrena izan zen Arantzazu joan den domekan

Urtetako ohiturari eutsiz, iraileko hirugarren domekan Arantzazuko basilika eta inguruak eskoriatzarrenak izan dira aurten ere. 06:30ean irtenda dozena bat lagunek oinez egin zuten Arantzazurako bidea. Beste asko eta asko autobusez eta autoz joan ziren Amabirjina ikustera. Jesus Ortiz de Urbina parrokoak esan zuen 12:00etako meza nagusia. Alkateak eta bi zinegotzik ordezkatu zuten Udala. Gero, guztiek elkarrekin bapoz bazkaldu zuten Arantzazun. /A.G.

LABUR

Batzordekide berriak izendatu ditu Amuskak

Amuska emakume taldeak uda aurretik egin zuen batzar orokorra. Besteak beste, zuzendaritzako batzordekideak aldatzea zuten gai zerrendan. Izan ere, zortzi lagunek osatzen dute batzordea eta urtero-urtero aldatzen du batzorde erdia Amuskak. Aurten, aldiz, lau beharrez bost lagun sartu dira: Mari Jose Kortazar (presidenteordea), Leonor Herrero eta Maria Jesus Mata (diruzainak) Mari Jose Sala (batzordekidea) eta Kontxi Sagasta (idazkaria).

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 77 20 25
Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SAN MIGELAK APOTZAGA ETA BOLIBARREN
(Ikus ondoko albiste laburretan).

ARIMA BELTZAREN KONTZERTUA
Urriak 10ean, Arima Beltza blus-rock taldeak kontzertua eskainiko du Gaztetxean, 22:00etan.

HITZALDIA
Documento de voluntades anticipadas hitzaldia emango dute urriaren 14an, 18:30ean, kultura etxean. Hitzaldia Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen aldeko Elkarteko kideak emango dute.

AXTROKIRENAGENDA

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak erosi gura dituztenek aukera paregabea dute oraindik. 50 eta 300 euroko akzioak daude salgai. Erosi gura duenak 943 71 54 34 zenbakira deitu beharko du.

ELIZATEAK

Elizateek eta Letek aukeratu dituzte datozen lau urteotarako alkate berriak

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako zazpi elizateek eta Lete auzoak badituzte datozen lau urteotarako alkate berriak. Azkeneko hilabeteotan, elizateek Auzokideen Elkarteak osatu dituzte, eta elkarte horietako presidentek izango dira auzo-alkate berriak. Zortzi alkate horietatik lauk lehendik zuten alkate karguan jarraituko dute: Marinen, Unai Salaberria; Gellaon, Joseba Urkia; Bolibarren, Mikel Izurrategi; Zarimutzen, Ramon Errasti; eta Mazmelan, Juan Karlos Beloki.

Kargu berria hartu dutenak, berriz, ondokoak dira: Apotzagan, Juan Mari Lezeta; Mendiolan, Josu Agiriano; eta Leten, Javier Uribesalgo.

Zortzi alkateok datorren astean bertan bilduko dira Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoarekin.



Eskoriatzako zazpi elizateek Auzokideen Elkarteak egin dute azkeneko hilabeteotan.

TXUTXUMUTXUA



Idazle gazteak Parisen bidaiari

Arizmendi ikastolako Almen guneko DBH2ko ikasleek ez dute batere gaizki hasi ikasturtea. Izan ere, joan den ikasturte amaieran Liburu Gaztea 2003 lehiaketan Parisera joateko saria irabazi zuten. Mailako ikasle guztiendako lekuri ez-eta, zozketa egin behar izan zuten ikasleek artean. Batzuen pozak besteen tristura ekarri zuen. Hala, irailean 30 ikasle eta bi irakasle izan dira bost egunez Parisen.

Eurodisneyn makina bat jolas egin, Parisko bazterrak ezagutu eta hainbat museo bisitatu zituzten. Argazkia horren lekuko.

LABUR

Auzotarrak eta bertsolariak Apotzagan nagusi

Apotzagan eta Bolibarren San Migelak ospatzen dituzte. Lehen, asteburu baten auzo batek eta hurrengoan beste auzoak ospatzen zituen festak: "Orain, berriz, jaiak oso beselakoak dira eta San Migeletan egiten ditugu jaiok bi auzo-ok. Auzotarrendako izaten dira eta jaiok", esan digute apotzagarrek. Zapatuan, meza 12:30ean, 16:30ean Mus Txapelketa eta iluntzean bertso afaria Egaña eta Lujanbiorekin. Domekan Marrazki Lehiaketa eta meza izango dituzte.

Lau ume bataiatuko dituzte Bolibarren


Bolibarko San Migel festetako protagonista nagusiak domekan, hilak 28, bataiatuko dituzten lau umeak izango dira seguruenik. "Lau ume batera inoiz ez ziren bataiatuko Bolibarren. Lehen, jaiatzeko bat bataiatzen zirelako umeak eta geroztik horrenbeste ume ez ditugulako izan auzoan", esan digute Bolibarren. 11:30ean bataiatuko dituzte umeak meza nagusiaren barruan. Bihar, zapatua, meza nagusia egingo da 11:30ean eta ondoren luntxa egingo da auzotarrendako.

Omenaldia egingo die Udalak herriko erretiratuei

Datorren urriaren 5ean omenaldi beroa egingo die Eskoriatzako Udalak herriko 65 urtetik gorako herritarrei.

Jai hasteko, 12:30ean meza izango dute San Pedro parrokiaren. Mezaren ondoren, salda beroa izango dute bildutakoek. Pilotalekuan bazkaria egingo dute gero, eta dantzan egiteko aukera izango dute herriko nagusienek. Hala, izena eman gura duenak lehenbailehen eman beharko du Olazarren bulegoan.

BEIRALAN KRISTALDEGIA




- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

'Hazia erein zenutenoi' erakusketa izan dute ikusgai herriko erretiratuek

AINTZANE GARDOKI

Espainiako gerran hildakoen eta fusilatutakoen gainekoa da *Hazia erein zenutenoi* erakusketa. Ibarreko herrietan erakutsita, Gatzagan da erakusketa. Hilaren 13an, Erretiratuen Egunean, askok ikusi zuten erakusketa hori, Esteban Plazaola tartean.

Esteban Plazaolak emozioz igo zituen Garro jauregiko eskailerak erakusketa ikusteko. Oroitzapen latz ugari dakartzkio gerrak; 36ko gerrak, Espainiako gerrak, gerra zibilak. "Egun ere makina bat gerraren berri dugu komunikabideetan. Ezin dut hori ulertu. Han eta hemen gerrara boluntario doanak ez daki gerraren gainean gauza askorik, bestela ez litzateke joango. Horren dudarik ez dut", dio Estebanek.

Gerra hasi zenean, gazteek guardiak egiten zituzten mendian, Gatzagako Udalak aginduta. "Frankistak Arabatik sartzen ikusi genituen. Arin baino arinago udaletxera jaitsi eta errifleak han utzita, etxerako bidean, espainolok mendian ikusi nindutela esan zidaten. Gorria nintzela. Nik ezetz



Zortzi gatzagar eraman zituzten preso Donostia aldera; bakarra itzuli zen bizirik eta beste zazpien berririk ez zen gehiago izan.

eta ezetz, eta azkenean libre utzi ninduten. Baina laster deitu zidaten soldadutzara joateko. Frankisten aldean egin behar izan nituen hiru urte. Gatzagatik lau

lagun eraman gintuzten orduan soldadu: Santiago Zubillaga, Bitoriano Zubillaga, Eugenio Abasolo eta ni neu. Eugeniok eta biok elkarrekin pasatu genuen solda-

dutza osoa. Bilbo hartu zutenean, Lizarratik Balmasedara eraman gintuzten. Hura izan zen benetako gerra. Hango tiro hotsak ez zuten amaierarik. Euskaldunak ginen

asko eta asko, gorrien artekoak, baina norberaren bizia zegoen jokoan", dio penaz Plazaolak. Santander, Asturias, Aragoi, Toledo... "Non ez zitzaigun hiru urtez ibiltzea egokitu!".

Etxekoan berri handirik ez zuten. Gosea eta tiro hotsak izan ziren luzaroan nagusi Leintz Gatzagan ere: "Marinen zegoen frontea. Jende askok egin zuen alde. Beste etxe askotan moduan, gurean ere izan zen familia bat ezkutatuta. Gatzagan bertan bana-banatzuk hil ziren gerra zela-eta, baina inguruetako auzo eta herri askotatik bezala, inongo kulparik ez zuten herritarrak eraman eta fusilatu zituzten. Jende ona, langilea, normala, gu modukoak, arazoetan inoiz sartu gabeak zirenak. Beste batzuen ikusiezina eraman zituzten heriotzara. Dominagako Beitia gutxitan etorriko zen herrira; behin etorriko eta bertan harrapatu zuten. Manuel Etxabe artzaina, Valentin Lamarain, Anselmo Elgoibar, Salterain, 18 urteko gaztea, eta beste batzuk. Gure konpainian 160 lagun hasi ginen eta 70 bakarrik heldu ginen amaierara bizirik. Izan ere, horixe baino ez da gerra: heriotza", amaitu du Plazaolak.



Bederatzi ume daude aurten Gatzagako eskolan

Urtetan itxita egon ondoren, orain dela hiru urte zabaldu zituen berriro ateak Gatzagako eskolak. Zazpi ume hasi ziren orduan eta bi nagusienak, Gemma eta Julen, aurtengo ikasturtean Eskoriatzako Luis Ezeizan hasi dira. Lehen Hezkuntza egingo dute. Gorka Zubillaga da, berriz, aurten eskolan hasi den ume bakarra. Bederatzi dira, beraz, 2003-2004 ikasturtean herrian egongo diren umeak. Astelehenetik aurrera, gainera, egun osoz hasiko dira eskolan.

LABUR

Auzo-egurra banatzeko zozketa egingo dute urrian

Leintz Gatzagako Udalak urrian egingo duen auzo-egurren zozketan parte hartu gura duten herritarrek izena eman beharko dute udaletxean. Izen ematea irailaren 30a aurretik egin behar da. Gatzagarrek urtetan izan dute onura publikoko mendietatik behar duten egurra jasotzeko aukera. Zenbat herritarrek egurra eskatu duten ikusi ondoren, Foru Aldundiko teknikariek egur sortak markatuko dituzte basoan, eta ondoren zozketa egingo dute.

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumiioa erabilita

Aingerugardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Aitzorrotz elektronika
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Fotosintesis argazkilaritza
Gantxegi harategia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda



Ondo ibili denok
San Migeletan!

TUSKO IRUJARIARITZA GOBIERNO VASCO

Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

2003.

Garai, irudi eta zerbitzu berriak.


**Zorionak
denoi!**

Mitarte 23 / ARETXABALETA / Tel.: 943 79 96 66 / Faxe: 943 77 10 33 / urkulu@cadena88.com

JMA

giltzen kopiak ere egiten ditugu

Etxe onenekin lan egiten dugu:





Zorionak aretxabaletar guztioi!

Altzariak

Diseinua

Apainketa

Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07